



**Arartekoaren 2024R-3316-23 Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 30ekoa. Honen bidez, Getxoko Udalari gomendatzen zaio ondoriorik gabe utz dezala trafikoko araudia urratzeagatik jarritako zehapen bat.**

#### Aurrekariak

1. Arartekoak herritar baten kexa izapidetzeko onartu zuen, eta kexa hori jartzeko arrazoia izan zen kexagilea ez zegoela ados Getxoko Udalak zehapen bat jarri izanarekin "seinaleztatuta eta mugatuta dagoen garraio publikoko geralekuaren aparkatzeagatik".

Aurkeztutako idatzian, kexagileak adierazi zuen ibilgailua ez zegoela aparkatuta, baizik eta gelditu egin zela pertsona bat geralekuaren uzteko eta berehala jarri zela martxan berrizo, eta ez zuela eraginik izan geralekua erabiltzen zuten autobusentzako. Halaber, gaineratu zuen agentea behar adina hurbildu zela matrikula hartzeko, baina unean bertan ez ziola salaketaren berri eman, nahiz eta ibilgailuaren barruan egon. Azkenik, alegatu zuen Getxoko hiri-izaerako bide publikoetako trafikoa, erabilera eta segurtasuna antolatzeko udal-ordenantzaren 130. artikuluaren arabera, preskribatu egin dela zehatu beharreko ekintza, eta hori bera

2. Aurrez azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak laguntzeko eskaera egin zion Getxoko Udalari, eta eskatu zion zehapen-prozedurari zegokion administrazio-espedientearen kopia bidal ziezaiola.
3. Egindako informazio-eskaera erantzuteko, Getxoko Udalak zehapen-espedientearen kopia bidali zuen Arartekora, eta Udaltzaingoaren administrazio orokorreko teknikariaren txosten bat ere bai.

Txosten horretan hauxe adierazten da:

*"Respecto a la notificación de la denuncia en el presente caso, el agente en el boletín hace constar que se encontraba "a pie" (folio 1/40). En el expediente administrativo de su razón, obra contestación del agente a las alegaciones formuladas por la interesada (folio 16/40) según la cual se indica "El vehículo obstaculizó al bus, por lo que el agente se ratifica en la denuncia". De ello se desprende que el agente que se encontraba realizando labores de vigilancia y control del tráfico, tuvo que despejar la parada de bus para que quedase libre y el bus que estaba intentando realizar la maniobra pudiera parar. La parada de bus donde se produjo la denuncia se encuentra situada en una calzada de doble carril de circulación de sentido único, sin estacionamientos, por lo que el agente que se encontraba "a pie" no pudo más que continuar con la labor"*



*policial del control del tráfico, sin disponer de medios para la persecución del vehículo. Recabar los datos de identificación (comprobación de documentación y transcripción en el boletín) habría precisado de un tiempo del que no se disponía en ese momento toda vez que el vehículo denunciado estaba obstaculizando al autobús.*

*Por tanto, la falta de notificación de la denuncia en el acto se encuadra en el supuesto del artículo 89.2 d) de la LSV.*

*La notificación de la denuncia se produjo en momento posterior en el domicilio de la denunciada una vez incoado el procedimiento sancionador. Así se hace constar en la resolución núm. 2672/2023 por la que se acuerda la imposición de la sanción (folio 18/40) según la cual "En el caso que nos ocupa, la infracción se cometió el 21/10/2022, sin que se pudiera identificar en el acto al infractor por encontrarse el agente a pie, procediéndose a la notificación de la denuncia el 06/02/2023."*

(...)

*El Ararteko traslada que "Asimismo, la interesada refiere que el vehículo no se encontraba estacionado, sino que se detuvo para dejar a una persona en la parada reanudar la marcha inmediatamente, no afectando a los autobuses que utilizan la parada.". Tal afirmación por parte de la recurrente es contradictoria con los propios términos de la denuncia "Estacionar en parada de bus obstaculizando", y el documento de ratificación de denuncia "El vehículo obstaculizó al bus, por lo que el agente se ratifica en la denuncia".*

*Por su parte el RGC (artículo 94. apartado 1 i) y apartado 2) define como lugares prohibidos tanto para parar como estacionar, entre otros: las zonas destinadas para estacionamiento y parada de uso exclusivo para el transporte público urbano.*

*El apartado 3 de dicho precepto dispone que las paradas o estacionamientos en dicho lugar tendrán la consideración de infracciones graves.*

*Finalmente, según el escrito de queja, la interesada señala que el ayuntamiento le notificó la denuncia el 6 de febrero de 2023 y alega que se ha producido la prescripción de la acción para sancionar conforme al artículo 130 de la Ordenanza municipal de ordenación del tráfico, usos y seguridad en las vías públicas de carácter urbanos de Getxo, cuestión ésta que también alegó en el procedimiento.*



*Sobre dicho extremo, indicar que la infracción es tipificada en la incoación del procedimiento (y así se mantiene a lo largo del mismo) como una infracción grave del art. 91.2-i del RGC:*

*"Se consideran paradas o estacionamientos en lugares peligrosos o que obstaculizan gravemente la circulación los que constituyan un riesgo u obstáculo a la circulación en los siguientes supuestos:*

*i) Cuando el estacionamiento se efectúe en una parada de transporte público, señalizada y delimitada."*

*El apartado 3 del mismo precepto establece "Los supuestos de paradas o estacionamientos en lugares peligrosos o que obstaculicen gravemente la circulación tienen la consideración de infracciones graves".*

*En concordancia con dicho precepto, el precitado artículo 94 del RGC dispone que las paradas de autobús son lugares prohibidos para parar y estacionar, considerando grave tal hecho. La prescripción de las infracciones se encuentra regulada por el artículo 112 de la LSV:*

*(...)*

*Teniendo en consideración que el hecho denunciado se produjo el 21/10/2022 y la notificación de la denuncia el día 6/02/2023, queda acreditado que, no habiendo transcurrido el plazo de 6 meses, no concurre la prescripción de la infracción".*

Txostenak hauxe dio: "se considera que la actuación del agente de policía, la denuncia efectuada y el procedimiento administrativo-sancionador incoado e instruido al efecto, han sido acordes a Derecho".

Horrez gain, hau ere adierazten du: "habiendo terminado el procedimiento administrativo mediante resolución motivada de la Concejala delegada del Área Seguridad Ciudadana, y existiendo así mismo resolución que da contestación y resuelve el recurso de reposición interpuesto, si la reclamante entiende que la denuncia y/o el procedimiento sancionador no se han ajustado a Derecho, tiene la posibilidad de interponer recurso contencioso-administrativo contra la actuación municipal ante el órgano jurisdiccional competente".



4. Hortaz, beharrezkoak diren egitate- eta zuzenbide-elementuak daudela uste denez, honako gogoeta hauek egiten ditu Arartekoak:

#### Gogoetak

1. Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintza Errege Dekretuaren (aurrerantzean Trafikoaren legea) 86.2 artikuluak zera xedatzen du: *zirkulazioa zaintzeaz arduratzen diren eta agindutako eginkizunetan diharduten agintaritza agenteek egindako salaketa, unean bertan salatuari jakinarazitakoa, izango da zehapen-prozedura hasteko egintza, ondorio guztieta rako.*"

Hortaz, salaketa ez da soilik trafikoari buruzko araudia urratu dezakeen egitate baten berri emateko bitartekoa, baizik eta zehatzeko prozedura martxan jartzen duen mekanismoa ere bai. Ezaugarri horregatik beragatik, prozedurazko mekanismoaren abiarazletzat jo ahal izateko zenbait betekizun bete behar ditu, eta lege horretako 87. artikuluko 2. apartatuan daude jasota.

Horrez gain, defendatzeko eskubidearen berme ere bada; izan ere, une horretan baliabide baliodun bakarra da gidariek agente jarduleari eskuatu ahal izateko nola egitatea zehazteko hala agentearen egiazkotasun-presuntzioaren aurrean egitateen inguruun duten bertsioa babesten duten probak eta testigantzak biltzeko erabakigarriak izan daitezkeen alderdi jakin batzuk buletinean jaso ditzala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2004ko urriaren 5eko epaiak adierazten duen bezala, salaketa egintzan bertan jakinarazteari buruzko arau orokorra administratuak defendatzeko oinarrizko bermetzat ezartzen da, eta berme horiek oso zorrotzak izan behar dute zehapen-prozedura baten esparruan, eta horrek salbuespen-kasuen interpretazio murriztailea egitera behartzen du, salbuespen hori arau orokor ez bihurtzeko.

Hori horrela, Trafiko Legearen 89. artikuluak salaketaren jakinarazpena arau-haustea detektatzen den une berean egitea eskatzen du, eta errespetatu beharreko gutxieneko edukia jasotzea. Bigarren apartatuan zerrendatzen diren lau kasu espezifikotan bakarrik da balioduna gerora jakinaraztea:

- "a) Salaketa egiterakoan, ibilgailua gerarazteak zirkulazioan arriskua eragin badezake. Kasu horretan, agenteak ibilgailua geraraztea eragozten duten arrazoik adierazi beharko ditu.*
- b) Salaketa egiterakoan, ibilgailua aparkatuta badago, eta gidaria bertan ez badago.*



- c) Ibilgailua identifikatzeko irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko tresnen bidez izan bada arauhaustearen berri.
- d) Agente salaztalea zirkulazioa zaindu, kontrolatu eta arautzko lanetan edo diziplina-arloko lanetan ari denean eta ibilgailuari jarraitzeko baliabiderik ez duenean."

Bestalde, Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloko zehapen-prozeduraren erregelamendua onartzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluak honako hau xedatzen du:

*"Agintaritza-agenteek salatuak geldiarazi barik egindako salaketek ez dute baliorik izango, baldin eta salaketan bertan ibilgailua ez gelditzeko arrazoi zehatz eta espezifikoak jasotzen ez badira eta salatuei jakinarazten ez bazaizkie."*

Getxoko hiri-izaerako bide publikoetako trafikoa, erabilerak eta segurtasuna antolatzeko udal-ordenantzaren 124. artikuluaren arabera,

*"Salaketako orria salatutakoari bertan eskuratuko zaio, hala ahal bada, salaketari dagokion espdienteari hasiera emanda; salatutakoak salatzalearekin batean sinatuko paperean, bere sinaduraz aitor ematen diola berarentzat den kopia eskura jasoari, ez salaketaren egintzakin bat datorrela, ordea. Baldin eta salatutakoak uko egingo balio sinatzearei edo egiten ez baleki, hala jarrarazi egingo luke salatzialeak eta berak adierazitakoak harako bestearen sinadurak beste balioko luke. Bestelako arrazoiengatik ere, salaketako paperean behar den bezala justifikatuta agertarazita, jakinarazi ahal izango da geroago salaketaren berri; bertan eskura ez emandako salaketa-orriek ez dute baliorik batere izango, halere, ibilgailua geldiaraztea eragotzi zuten berariazko kausa zehatzak agertu ez jakinarazi gabe badaude."*

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, urriaren 5eko 848/2000 epaian, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 2ko 339/90 Legegintzako Errege Dekretuaren 77. artikulua eta Trafikoari buruzko Legearen 10. artikulua aztertu zituen, eta honako hau adierazi zuen:

*"Esta evolución normativa, por un lado, revela que la intención del legislador es la de restringir significativamente y al mínimo las posibilidades de formular las denuncias por parte de los agentes de la autoridad sin notificarse éstas en el acto a los interesados. Por otro lado, esas "razones justificadas", que ya decíamos que deben ser bastantes o suficientes, o si se prefiere "convincientes" deben ser ahora "concretas y específicas". El requisito de la concreción supone que la causa debe considerarse en sí misma, con exclusión*



*de todo lo extraño o accesorio, es decir; referida al caso concreto. Igualmente, debe entenderse que la causa debe ser precisa, determinada, sin vaguedad alguna. El segundo requisito, positivado en el adjetivo "específicas" ha de entenderse como causa especial, característica o propia del caso concreto. Por ello, es parecer de la Sala, que la correcta interpretación tanto del artículo 77 del Real Decreto Legislativo 339/90 como del artículo 10 del Real Decreto 320/94 exige la consignación cumplida y detallada en el propio boletín de denuncia de las causas exactas, particulares que en el supuesto concreto han impedido a los agentes denunciantes notificar la misma en el acto al denunciado, causas que a su vez deben ser suficientes, bastantes y convincentes de la imposibilidad de parar el vehículo conducido por el denunciado a fin de notificarle la denuncia por los agentes realizada. Deben rechazarse pues las expresiones genéricas, que ofrecen a instrucciones predeterminadas como indica la sigla NUM001. En el presente supuesto y a título de ejemplo, la administración perfectamente podría haber indicado en la propia denuncia como causa concreta y específica que le impidió notificar en el acto la denuncia al interesado los agentes que formaban parte de la patrulla ese día y qué vehículos estaban denunciando en ese momento cada uno de los agentes para así no haber podido parar el vehículo conducido por el recurrente. No es válida la constatación y especificación de esas causas con posterioridad a la denuncia, y menos aún ya en fase jurisdiccional, pues el precepto analizado exige su constatación en la propia denuncia."*

Kexagileak salaketa-egintzan jakinarazpenik egin ez zela azaldu zuen kexan, zehapen-prozeduran eta zehapenaren aurka jarritako errekursoan ere bai.

Zehazki, salaketa jakinarazi osteko alegazioen idazkian adierazi zuen gelditu egin zela pertsona bat uzteko, eta berehala martxan jarri zela, geralekua erabiltzen duten autobusei inolako eragozpenik eragin gabe. Bidenabar, zera adierazi zuen: "*En todo momento la conductora se encontraba en el interior del vehículo, por lo que la notificación debiera haberse producido en ese momento, no constando en la notificación de la denuncia causa concreta, específica y justificada que impidió la detención del vehículo*".

Halaber, berraztertzeko errekursoan hauxe alegatu zuen: *el agente se aproximó lo suficiente al vehículo para tomar la matrícula, pudiendo haberlo detenido en ese mismo momento*".

Administrazio-espedientearen jasota dagoenaren arabera, zehapen-prozedurari buruzko araudiaren 12.3 artikuluan oinarrituta, salatuaren alegazioen berri eman zitzzion agente salatzaileari, alegazio-idazkiari buruzko txostena eman zezan. Agente salatzaileak zera baino ez zuen adierazi: *"El vehículo obstaculizó al bus, por lo que el agente se ratifica en la denuncia"*.



Erakunde honek egindako informazio-eskaerari erantzuteko, eta interesdunak egindako alegazioetarako agenteak emandako erantzuna oinarri hartuta, udalak adierazi zuen ondorioztatzen dena dela trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko zereginak gauzatzen ari zen agenteak autobusaren geralekua hustu behar izan zuela libre gera zedin eta maniobra egiten saiatzen ari zen autobusak gelditzeko aukera izan zedin. Zera adierazi zuen: *"La parada de bus donde se produjo la denuncia se encuentra situada en una calzada de doble carril de circulación de sentido único, sin estacionamientos, por lo que el agente que se encontraba "a pie" no pudo más que continuar con la labor policial del control del tráfico, sin disponer de medios para la persecución del vehículo. Recabar los datos de identificación (comprobación de documentación y transcripción en el boletín) habría precisado de un tiempo del que no se disponía en ese momento toda vez que el vehículo denunciado estaba obstaculizando al autobús"*.

Beraz, udalaren iritziz, salaketa egintzan bertan ez jakinaraztea Trafiko Legearen 89. artikuluko d) apartatuaren salbuespenean duela babesia *"Agente salatzailea zirkulazioa zaindu, kontrolatu eta arautzeko lanetan edo diciplina-arloko lanetan ari denean eta ibilgailuari jarraitzeko baliabiderik ez duenean."*

Alabaina, salaketaren buletinean gidariaren datuen apartatuan "oinezko agentea" baino ez da zehazten, eta, kexagilearen alegazioak ezagutu arren, ez da ezer adierazten horri buruz agentearen berrespen-txostenean, salatutako egintza berrestea baino ez baitu egiten.

Beraz, dokumentu horiek ez dute bermatzen udalaren bertsioa, zeina, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak urriaren 5eko 848/2000 epaian adierazten duen bezala, ez baita baliozkoa, agente salatzaileak egiten ez dituen eta salaketaren ondoren egiten den kausen egiaztapen eta zehaztapen bat baita.

Laburbilduz, ez salaketa-buletinean, ez expedientea hasteko erabakian, ez agentearen geroko txosten osagarrian, ez dira deskribatu salaketa unean bertan jakinaraztea eragotzi zuten inguruabar zehatzak, eta ez da frogatu, ezta zantzuaren arabera ere, agentea trafikoa zaindu, kontrolatu, erregulatu edota diciplinatzeko lanetan ari zenik, ezta ibilgailuaren jarraipena egiteko bitartekorik ez zuenik ere.

Zehapen-prozedurari buruzko araudiaren 10.2 artikulua eta Getxoko hiri-izaerako bide publikoetako trafikoa, erabilera eta segurtasuna antolatzeko udal-ordenantzaren 124. artikulua esplizituak dira, salaketetan salaketaren unean jakinarazpena egitea eragotzi zuten "kausa zehatz eta espezifikoak" edo "arrazoi justifikatuak" jasotzea eskatzen baitute. Beraz, ezin da onartu "oinezko agentea" salaketan agertzen den formula bat, Arartekoaren ustez ez baitu betetzen agenteak



salaketa unean bertan salatuari ez jakinarazteko behar den zehaztasuna, espezifikotasuna eta arrazoi justifikatua.

Auzi horri buruz, Ceutako Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak, uztailaren 4ko 250/2023 Epaian, honako hau adierazi zuen:

*"Pues bien, conforme a la doctrina anteriormente expuesta, dicha fórmula "servicio a pie" no puede considerarse como suficiente e idónea para cumplir el requisito de hacer constar la causa concreta y específica que impidió detener el vehículo en el acto, puesto que, partiendo, como se establece en la STSJ de Granada de 12 de septiembre de 2.002, de que no se puede estimar justificada la ausencia de notificación de la denuncia en el acto mediante la alegación de una causa genérica y que, como señala la STSJ del País Vasco de 5 de octubre de 2.004, la regla general de la notificación en el acto de la denuncia se establece por elementales garantías de defensa de los administrados, que en el marco de un procedimiento sancionador deben ser extremadas, lo que aboca a una interpretación restrictiva de los supuestos de su excepción, a fin de no convertir en regla general dicha excepción, conforme dispone la STSJ de Castilla-La Mancha de 27 de julio de 2.000, la consignación en frases estampilladas y genéricas no puede satisfacer las exigencias de concreción derivadas del precepto para que pueda apreciarse su justificación; en la misma línea, la STSJ del País Vasco de 5 de octubre de 2.000, rechaza las expresiones genéricas que obedezcan a instrucciones predeterminadas; y también la STSJ de Castilla-La Mancha de 3 de octubre de 2.003 establece que la fórmula de las expresiones transcritas no se aproxima siquiera a las razones justificadas que exige el precepto, añadiendo que el carácter estampillado no es sino una fórmula imperfecta y genérica de cubrir una exigencia que se caracteriza por su concreción y especificidad.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, maiatzaren 25eko 547/01 Epaian, gai hori ere jorratu zuen, zera aipatuta:

*"Esto lleva a que en el presente caso deba considerarse carente de validez la denuncia, toda vez que en ella se hace constar como motivo para justificar la ausencia de notificación personal al denunciado "carecer de medios para dar alcance al vehículo infractor", causa genérica que adolece de la falta de especificidad requerida en los artículos aplicables, no reflejando el boletín de denuncia cuales son esos medios, sin que la alegación de que el Agente estuviera patrullando a pie, circunstancia que, en todo caso no se consigan en el boletín de denuncia, permita conclusión distinta, pues siempre cabe la posibilidad de que el Agente se comunique con la Base interesando el auxilio de un vehículo policial para que proceda a la persecución del vehículo infractor, no constando tampoco que el denunciante careciera de medios para establecer*



*dicha comunicación, siendo habitual que los Agentes porten un "walkie-talkie" a tal efecto".*

Halaber, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak, ekainaren 12ko 173/2012 Epai bidez, zeinean Getxoko Udala baitzen alderdi demandatua, zera adierazi zuen:

*"Pues bien, en el caso de autos , obra el boletín de denuncia en el folio 1 del expediente administrativo, que no fue objeto de notificación en el acto, observándose que en el mismo no se consiga la causa concreta y específica que impidiera su notificación, no pudiendo tenerse por tal causa impeditiva la expresión "sin control de parada" que se consigna en la denuncia y no pudiendo obviar que, en el caso del Ayuntamiento demandado, la Ordenanza Municipal de Ordenación del tráfico usos y seguridad en las vías públicas de carácter urbano exige categóricamente que las "razones justificadas" que impidan la notificación de la denuncia en el momento "deberán hacerse constar en las propias denuncias" , consignando la consecuencia jurídica de la ausencia de esta consignación que no es otra que la invalidez de la denuncia".*

Inguruabar horietan, jadanik aurreratu dugunez, Arartekoak jotzen du alegatutako kausak ez dituela barne hartzen aipatutako arauek kasu zehatzerako exijitzen dituzten zehaztasuna eta konkretutasuna; beraz, kontsignaziorik ezaren ondorio juridikoak, arauokin bat, salaketaren baliogabetasuna dakar, eta salaketa balioduna ez bada zehatzeko ebazenak oinarria galtzen du eta deuseztatu behar da.

2. Arau-haustea preskribatzearen harira, kontuan hartu behar da ezen, Auzitegi Gorenak emandako dotrinaren arabera, udalek ordenantzak eman ditzaketela (urretik legezko gaikuntza behar izanik gabe) beren eskumenekoa den orotan, betiere horretan egon daitekeen lejeria sektorialaren aurka egiten ez badute. Beraz, trafikoaren esparruan, dagoen lege mailako arau sektorialak muga jartzen dio tokiko araudiaren ahalari.

Konstituzio Auzitegiaren irailaren 29ko 117/2022 Epaian honako hau ezartzen da:

*"...el legislador estatal, cuando reguló en el art. 30 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público (y, anteriormente, en el art. 132 de la Ley 30/1992), los plazos de prescripción de las infracciones y sanciones, determinó que son aplicables en defecto de previsión legal expresa, disponiendo, como regla general, que «prescribirán según lo dispuesto en las leyes que las establezcan»; leyes que pueden ser tanto estatales como autonómicas, en función de la titularidad de la competencia en cada caso.*



*Pero, en el caso de la prescripción, también hemos declarado en la STC 102/1995, de 26 de junio, FJ 32, que «[e]l señalamiento de los plazos de prescripción de las infracciones, acomodados a su gravedad, conviene a la seguridad jurídica y, sobre todo, la uniformidad en esta materia procura la igualdad de todos los españoles en el ejercicio de los derechos y en el cumplimiento de los deberes constitucionales cuya garantía, en su dimensión normativa, solo puede conseguirse mediante la regulación de sus condiciones básicas (art. 149.1.1 CE)».*

Hori horrela, udalak preskripzio-aldien inguruan egin duen aplikazioa zuzena da, baina erakunde honek jotzen du ezen, ordenantza aipatutako alderdian legez kontrakoa izateagatik nulua denez, berori aldatu behar dela segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko xedez.

3. Azkenik, Udalak alegatu du kexagileak administrazioarekiko auzi-errekursoa jar dezakeela, baldin eta jotzen badu salaketa eta zehapen-procedura zuzenbidearen araberakoak izan ez direla; bada, horren harira, Arartekoak argitu nahi du ezen, nahiz eta justizia-auzitegiei dagokien erregelamendu-ahalmena kontrolatzea eta administrazio-jardunaren legezkotasuna, Konstituzioaren 106.1 artikuluaren arabera, justizia-auzitegietara jotzea ez dela herritarrek botere publikoen jardueren aurrean duten berme bakarra.

Horren harira, gure Zuzenbidezko Estatuak herritarrei eskaintzen dien berme-sistema bikoitza aipatu beharra dago. Hala, alde batetik irismen jurisdikzionaleko bermeak daude, justizia-auzitegietan mugatuak, eta, beste aldetik, irismen instituzionaleko bermeak, Espainiako Konstituzioaren 54. artikuluan babestuak eta jasoak. Esparru horretan kokatzen da, hain zuen ere, Ararteko erakundearen lan fiskalizatzailea.

Aurreko guztia ikusirik, azpimarratzeko da gure ordenamendu juridikoak legebiltzarreko ordezkari guztiei ematen dien baliagarritasuna, administrazio publikoen jarduketan legezkotasunaren babesle diren heinean. Gauzak horrela, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –EAEn erakunde hau sortu eta arautzeakoak– zioen azalpenean adierazten duenaren arabera, Ararteko *Administrazioaren kontrolera bideratutako organoa da, herritarrek behar bezalako kudeaketa edukitzeko duten eskubidea babesteko eta legezkotasun printzipioa bermatzeko*.

Zehazkiago, lege horren 1.2 artikuluak dioenez, herritarrak autoritate- eta botere-abusuetatik eta euskal administrazio publikoen zabarkerietatik babestea da erakunde honen eginkizun nagusia. Gomendio hau lan horren baitan kokatzen da.



Hortaz, gure ordenamendu juridikoak erakunde honi esleitzen dizkion kontrol-ahalmenek, gure Zuzenbidezko Estatuan, justizia-auzitegiak gauzatzen duten eginkizun jurisdikzionala osatzen dute. Edonola ere, herritarrei dagokie beren eskubideen defentsan bide batera eta beste batera jotzeko aukera.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzeakoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## **GOMENDIOA**

Azaldutako guztia aintzat hartuta, Getxoko Udalak ondoriorik gabe utz dezala kexagileari jarritako isuna, eta ordaindutako zenbatekoa itzultzeko erabaki dezala, egoki izanez gero.